

# WIKIPEDIA IKASGELAN


gida  
praktikoa



EUSKAL  
**WIKILARIEN**  
KULTURA ELKARTEA



**ikastolen**elkartea



# WIKIPEDIA **IKASGELAN**

gida praktikoa

<b>Sarrera. Dokumentu honen helburua.</b>	<b>3</b>
<b>Wikipedia euskaraz.</b>	<b>5</b>
<b>Wikipedia. Informazioaren fidagarritasuna.</b>	<b>6</b>
<b>Nola lagundu dezaket?</b>	<b>7</b>
<b>Editore izan... pausoz pauso.</b>	<b>8</b>
Norberaren udalerriko artikulua egitura aztertu.	9
Proba-orriaz baliatuko gara probak egiten hasteko.	10
<b>Prest? Benetako ekarpenak egiten hasiko gara.</b>	<b>11</b>
Gaztelaniaz edo ingelesez dauden artikulua euskaraz daudenekin alderatu.	11
Irudiak eta argazkiak igo.	15
Ilustrazioak sortu edo itzuli.	16
<b>Txikipedia</b>	<b>18</b>
<b>Egiten diren aldaketen kontrola. Bandalismoa ekiditeko tresnak.</b>	<b>19</b>
<b>Proiektuak antolatzen. Arbela.</b>	<b>22</b>
<b>Ez gaude bakarrik. Komunitatea.</b>	<b>25</b>
<b>Proiektu-proposamenak.</b>	<b>26</b>
Txikipedian ekarpenak egin.	26
Wikidata. Wikipediaren datu-basea.	27
Gure ikastetxeko artikulua lantaldean osatu edo sortu.	31

# Sarrera. Dokumentu honen helburua.

Dokumentu honen helburua da ikasgele-tan Wikipediaren edizioa landu nahi duten irakasleei lanean hasteko laguntza ematea eta proposamenak egitea.

Gida honen helburua EZ da Wikipedian editatzeko beharrezkoak diren tresna eta baliabideak erabiltzen irakastea. Horretarako, beste hainbat gida, laguntza eta bideo daude. Gida honetatik laguntza horietara bideratu baino ez zaituztegu egingo.

Era berean, helburua EZ da gida honen bidez testu mota desberdinen eta testu entziklopedikoen lanketa bideratzea, ezta euskaraz zuzen idazten irakastea ere. Irakasleak gaitasun horiek aurrez landu dituela aurreikusten da.

Wikipedian editore moduan aritzeak esparru asko eta askotarikoak lantzen ditu:

- Pentsamendu kritikoa eta ikertzeko trebetasunak
- Idazteko trebetasunak
- Lankidetzak
- IKT konpetentziak

Wikipedian edizio-lanetan hasteko, batxilergoko ikasleak dira egokienak. Izan ere, ikasle horiek IKT konpetentzia nahikoa garrantu dute eskatzen zaiena egin ahal izateko. Beste hizkuntza batean idatzitako testuak ulertzeko gaitasuna dute eta gai dira, halaber, testu horiek euskarara itzultzen saiatzeko edo hutsetik testu bat euskaraz sortzeko.

Baina Txikipedia ere badugu. Txikipedia 8-13 urte bitarteko umeentzat sortutako euskal entziklopedia da. Sortu berria denez, asko dago egiteko, osatzeko eta moldatzeko. Txikipediaren garapenean, batxilergoko ikasleak ez ezik, DBHkoak ere inplika ditzakegu.

Hori dela eta, ikastetxe barruan ere, proiektu honek hainbat arlotako irakasleen inplikazioa beharko luke.

- IKT dinamizatzaileak atal teknikoan lagundu beharko luke: tresnaren beraren erabilera, artikuluen jarraipena egiteko tresnen erabilera (adibidez, Arbela) edo askotariko baliabide eta edukiak sortzeko tresna informatiko egokien erabilera.
- Aukeratzen den artikuluen gaiaren arabera, dagokion arloko irakasleak idazten denaren kalitatea aztertu beharko luke, eta, era berean, iturrien fidagarritasunaren jarraipena eta lanketa egin.
- Euskara arloko irakasleak idazten denaren hizkuntza-kalitatearen eta estiloaren jarraipena egin beharko luke.
- Ingeleseztik, gaztelaniaz edo frantsesez idatzitako artikuluen itzulpen-lanak egiten direnean, hizkuntza horien irakasleek ere itzulpenaren kalitatearen jarraipena egin lezakete.
- Horren arabera, hainbat arlotako irakasleek esku har dezakete gida honetan azaltzen diren atalen lanketan.

Bestalde, ordu gutxiko esperientzia xume batera mugatu daiteke, eta jarraipena norberaren zaletasunaren esku utzi; edota arlo arteko proiektu esanguratsu moduan landu daiteke.

Proiektua garatzean ikasleek landuko dituzten gaitasunez gain, zaletasuna piztea eta etorkizuneko Wikipediako editore aktiboaren kopurua handitzea ere bada egitasmo honen helburua.

# Wikipedia. Zer da? Zer dakizu Wikipediaren inguruan?



Gai baten inguruan informazioa behar dugunean, askotan, Wikipediara jotzen dugu. Baina zer da Wikipedia? Zer dakigu Wikipediari buruz?

Lehen saio honetan, hainbat galdera egingo dira eta ikasleek beraiek bilatu beharko dute informazioa galderak erantzun ahal izateko eta hausnartzeko.

- Zer da Wikipedia?
- Norena da Wikipedia?
- Zer helburu du Wikipediak?
- Zein dira Wikipedian dauden artikuluen egileak?
- Nola osatzen da Wikipedia?
- Zein dira Wikipediaren 5 euskarriak? Idatzi bostak, eta hitz egin gelan bakoitzak dienez.


> Laguntza:

<https://eu.wikipedia.org/wiki/Laguntza:Sarrera><sup>1</sup>



# Wikipedia euskaraz.

Wikipedia 2001eko urtarrilaren 15ean sortu zen. Hiru urte eta erdi geroago, 10.000 editore baino gehiago ari ziren lanean, Wikipedia proiektuak orduan zituen 50 hizkuntza baino gehiagotan. Zer garapen izan du Wikipediak sortu zenetik?



- Jarraian eskatzen den informazioa bilatzea eta euskarak Wikipediaren barruan duen lekuaz hausnartzea da atal honen helburua.
- Zenbat hizkuntzatan dago Wikipedia?
- Zenbat artikulua daude idatzita ingelesez? Gaztelaniaz? Eta euskaraz?
- Zeintzuk osatzen dute euskarazko Wikipedia?
- Nik ere lagundu al dezaket?

> Laguntza:

[https://meta.wikimedia.org/wiki/List\\_of\\_Wikipedias](https://meta.wikimedia.org/wiki/List_of_Wikipedias)<sup>2</sup>

[https://eu.wikipedia.org/wiki/Euskarazko\\_Wikipedia](https://eu.wikipedia.org/wiki/Euskarazko_Wikipedia)<sup>3</sup>

<https://eu.wikipedia.org/wiki/Berezi:Estatistikak><sup>4</sup>





# Nola lagundu dezaket?

Wikipedian ekarpenak egiteko modu asko dago. Aurreko atalean saiatu gara ikusten guztion laguntza beharrezkoa dela, baina Wikipedian artikulua idaztea laguntzeko modu bat besterik ez da. Hemen dituzue Wikipedia moldatzeko egin behar diren zereginetako batzuk:

- Artikulu berriak idatzi.
- Artikuluei zuzenketak egin.
- Argazkiak igo eta artikuluei irudiak gehitu.
- Wikipedian erabil daitezkeen datuak Wikidatara igo.
- Aldaketa berrienak ikuskatu.
- Artikuluak berrikusi eta hobetzeko proposamenak egin.
- Wikipediako politikak eztabaidatu eta gatazkak konpontzen lagundu.
- Wikipedia funtzionarazten duen iturri ireki eta askeko softwarea garatu.
- ...

## Zer funtzio betetzen ikusten duzu zeure burua?

Atal honi dagokionez, helburua da jabetzea, ekarpenak egin eta laguntzen hasteko, ez dela beharrezkoa derrigorrez gai batean oso aditua izatea edo IKTetan oso trebea izatea. Hainbat modutan eta maila desberdinetan lagundu daiteke. Normalean, hasieran, era xumean, eta, nahi izanez gero, pixkanaka, ekarpen esanguratsuagoak eginez. Wikipedian gutako edozeinek lagundu dezake.

**Ikasleak Wikipedian parte hartzen hasi aurretik, Wikipedian editore moduan erregistratzeko urratsak emango ditugu.**

> **Laguntza:**

[https://eu.wikipedia.org/wiki/Laguntza:Nola\\_lagundu\\_dezaket](https://eu.wikipedia.org/wiki/Laguntza:Nola_lagundu_dezaket) <sup>6</sup>

Erregistratzeko arrazoiak:

<https://eu.wikipedia.org/wiki/Wikipedia:Lankideak> <sup>7</sup>

Kontu berria sortzeko tokia:

<https://eu.wikipedia.org/w/index.php?title=Berezi:KontuaSortu> <sup>8</sup>

Irakasleentzako laguntza emateko lekua da:

<https://eu.wikipedia.org/wiki/Atari:Hezkuntza/Irakasle-gela> <sup>9</sup>





# Editore izan ... pausoz pauso.

Wikipediako editore-lanetan hasiko dira ikasleak, baina hori ere pausoz pauso egingo dugu. Wikipedian idaztea erronka handia da. Ikasleak egiten duen lana ez da soilik beretzat edo gelakideen artean bakarrik partekatuta geldituko. Oraingoan, lan txukuna eginez gero, mundu guztiarentzat publikoa izango da. Egokia ez bada, berriz, ezabatu egingo dute. Horregatik, hasi aurretik, ezinbestekoa da Wikipedia hobeto ezagutzea.

Hala, komeni da Wikipediako sarrera-orriko “Hezkuntza” atalean dauden baliabideak eta “Laguntza” atala irakurtzea. Dokumentu horien bidez, ikasiko duzue Wikipedian ezin dela edozein modutan idatzi.

**LAGUNTZA**

*Hasi aurretik*

- Wikipedian aitzeko bost euskarriak ezagutu
- Ezagutu Wikipediako politikak
- Estilo gida ezagutu

*Hasi lanean*

- Hasi orain! Pausoz pauso aurrera
- Wikitestu tutoriala Aldaketak: fin-fin kodeak erabiliz

*Maiz egindako galderak*

- Orokorrak
- Praktikoak
- Teknikoak
- Irakasleak

Edonork edita dezake Wikipedian, baina badira oinarrizko arau batzuk. Artikuluaren egitura zuzena eta zer elementuk osatzen duten ikasiko duzue, eta, jakina, editatzeko eskura dituzuen tresnak erabiltzen ikasiko duzue.

- Ikuspegi neutral batetik idatzi behar da.
- Wikipedia ez da norberaren ideiak argitaratzeko toki bat.
- Ekarpene guztiek lizentzia askea dutenez, ez da zilegi egile-eskubideak dituzten iturrien edukiak igotzea Wikipediara.
- Wikipediako informazioak egiaztagarria izan behar du.

Wikipediari eduki berria gehitzean, garrantzitsua da estilo entziklopedikoan eta tonu formalean idaztea.

> **Laguntza:**

<https://eu.wikipedia.org/wiki/Atari:Hezkuntza><sup>10</sup>

<https://eu.wikipedia.org/wiki/Laguntza:Sarrera><sup>11</sup>

**Irakurri, eta, ondoren, ikasleekin hainbat jarduera egitea proposatzen dizuegu:**

- Norberaren udalerriko artikuluen egitura aztertu
- Proba-orriaz baliatuko gara probak egiten hasteko.

10




11





# Proba-orriaz baliatuko gara probak egiten hasteko.

Trebatzeko eta probak egiteko, proba-orria dauzkazu. Saioa hasita duzula, sakatu goian dagoen “Proba orria”. Proba orrian zaudela, edukia gehitzeko Ikusizko editorea edo Iturburu kode edizioa erabili ditzakezu. Modurik errazena, “Sortu” botoia sakatuaz, ikusizko editorea erabiltzea da.



## **Ikasleak proba-orrian daudela, saia daitezela honako ekintza hauek egiten:**

- Proba-artikuluaren izenburua idatzi. (adi!, artikuluetan ez da izenbururik jarri behar gero, automatikoki agertzen baita)
- Sarrera idatzi. (adi! Ez da “Sarrera” idatzi behar hasieran, soilik sarrerako testua)
- Irudi bat gehitu. Horretarako, ikasleei oso baliagarria gertatuko zaie baliabideen artean dagoen “Wikipedia irudiztatzen” dokumentua.
- Artikuluaren gorputz labur bat idatzi baldin eta atal bat baino gehiago badu, bakoitza ongi desberdinduz.
- Artikuluan, Wikipedian dagoen beste artikulua batera lotura gehitu.
- Artikuluko zati baten iturria aipatzeko erreferentzia gehitu.
- Kanpo lotura bat gehitu.

**Horiek egin ahal izateko, aurretik, Wikipediako “Hezkuntza” atalean dauden “Ikasleentzako baliabideak” ikustea komeni da.**

## **Argitaratu aurretik:**

- Egindako aldaketen laburpena idatzi.
- Egindakoaren aurrebista ikusi.

# Prest? Benetako ekarpenak egiten hasiko gara.

Publikoak diren artikuluetan aldaketa txikiak egiten hasiko gara. Horretarako, lehenik eta behin, erabaki behar dugu aldaketak zein artikulutan egingo ditugun.

Gai zehatz batean adituak bagara, horren inguruko artikulua bilatu eta ekarpenak egin ditzakegu; baina, hasteko, beste hizkuntzatan garatuago dauden artikuluetan oinarritzea izango da errazena.

**Horretarako, beste jarduera hau proposatzen dugu:**

## Gaztelaniaz edo ingelesez dauden artikulua euskaraz daudenekin alderatu.

Euskarazko Wikipedian, bilatu “Emakume matematikariak” kategoria. (<https://eu.wikipedia.org/wiki/Berezi:Kategoriak><sup>13</sup>) Kategoria horretan dauden artikulua zerrendatuta dauzkazula, ikusi kategoria berean “Español” edo “Français” hizkuntzan daudenak. Jarraian, egin gauza bera “English” sakatuta. Zenbat daude bakoitzean? Euskaraz dauden artikuluen garapena beste hizkuntzatan dagoenaren parekoa al da?



The screenshot shows the 'Berezi:Kategoriak' page on Wikipedia. The page title is 'Berezi:Kategoriak'. Below the title, it says 'Hurrengo kategoriak daude:'. There is a search box with the text 'Emakume matematikariak' and a search button labeled 'Erakutsi'. Below the search box, there is a list of categories: 'Emakume matematikariak (14 elementu)' and 'Emakume medikuak (21 elementu)'. The page also includes navigation links: '(lehena | azkena) Ikusi (aurreko 50ak) (hurrengo 50ak) (20 | 50 | 100 | 250 | 500)'.

13



Artikulu baten erreferentzia bere kategorian ez azaltzeak ez du kasu guztietan esan nahi artikulu hori existitzen ez denik.

## Esaterako:

Gida hau idatzi den unean, Maria Gaetana Agnesi matematikaria ez dago euskarazko zerrendan, baina bere gaztelaniazko edo ingelesezko artikuluan klikatzen badugu, artikulu bera euskaraz ere badagoela ikus dezakegu. Kasu honetan, Maria Gaetana Agnesi matematikariaren artikulua “Emakume matematikariak” kategorian sartzea faltako litzateke.

Artikulu Eztabaida +TX Irakurri Aldatu Aldatu iturburu kodea Ikusi historia Gehiago Wikipedia wikian bilatu

### Maria Gaetana Agnesi

**Maria Gaetana Agnesi** (Milan, Italia, 1718ko maiatzaren 16a - 1799ko urtarrilaren 9a) matematikaria, hizkuntzalaria, teologoa eta filosofoa izan zen.

1748an, *Instituzioni analitiche ad uso della gioventù italiana* testu liburua argitaratu zuen. Liburu honetan, uste da, kalkulu diferentzial eta integralak lehenengoz elkarrekin tratatu zirela. Ingelesera eta frantsesera itzuli ondoren, ospetsu bihurtu zen irakaskuntzan oihartzun handia izan zuelako diskurtso bakarrean, aurreko matematikari batzuen material sakabanatu eta heterogeneoak batzen zituelako lehenengoz sekuentzia logiko eta didaktikoan, aljebratik ekuazio diferentzialetara.

1750 eta 1752 artean, Bolognako Unibertsitatean matematikan katedraduna (ohoredun gisa) izaleaz gain, moja ere izan zen. Hurrengo berrogeita sei urtean, moja lanetan, bere bizitza eta ondasun guztiak biroak zainzeko eta laguntzeko eskaini zituen, berak sortutako babeslekuan bertan hil zen arte.

Bere izena geometria analitiko eta kalkulu liburuetan agertzen da sarritan, beti "Agneseko sorgina" izeneko kurbari esker. Baina esaera honetako bi hitzek gezurrezkoak dira: Agnesik ez zuen kurba hura aurkitu, eta sorgin izen hura, ziurrenik, ingeleserako itzulpen txar batengatik izan litzateke. Baina bere irudia kurba horrekin erlazionalteak, ez du bere meritua goren (bere liburua) gorapatzeko, tamalez.

Matematiken historian, kalkulu dibulgazioaren eraginagatik da Agnesi ospetsua.

*Instituzioni analitiche* liburua kontutan hartuz, matematikari emakume autore zaharrena da. Dirik Jan Struiken esanetan, Agnesi "Hipatiaren ondoren lehendabiziko emakume matematikari inportantea izan zen".

**Autoritate kontrola** WorldCat® VIAF: 2459799 LCCN: n93067591 BNF: cb105423187 (data) GND: 119223414 ISNI: 0000 0001 0862 3497 SUDOC: 079944728 CANTIC: a10295288 SELIBR: 251075 NLA: 35762970 ICCU: IT\ICCU\UBOV\129480 BVMC: 40186

Maria Gaetana Agnesi	
<span></span>	<span></span>
<span></span>	<span></span>
Bizitza	
Jaiotza	Milan, 1718ko maiatzaren 16a
Heriotza	Milan, 1799ko urtarrilaren 9a (80 urte)
Hobiratze lekua	Cimitero Monumentale di Milano

## Jarrai dezagun haritik tiraka:

Maria Gaetana Agnesi matematikariaren euskarazko artikuluan, ezkerrean dagoen "Honanzko lotura duten orriak" botoia sakatzen badugu, artikulu horretara lotura duten euskarazko beste hainbat artikuluren zerrenda ikusiko dugu. Hori bera gaztelaniazko artikuluan egiten badugu, lotura askoz gehiago agertuko dira euskaraz agertu direnak baino; esaterako, "Mujeres en la ciencia".

Modu horretan, euskaraz sortzeko dauden artikulu gehiago identifikatuko ditugu, edo, sortuta badaude ere, loturak gehitu nabarmenduko ditugu.

## Hala ere, euskaraz dauden artikuluen garapena beste hizkuntzatan dagoenaren parekoa al da?

Hutsuneak detektatzeko, badira beste modu batzuk.

- Adibidez, hor dugu **“Wikipediaren mantentze lanak”** deritzon kategoria. Kategoria horren barruan, sortu, osatu edo zuzentzeko dauden artikulua aurkituko dituzue. Baita irudiak falta dituztenak, laburregiak direnak edo itzuli gabeko testu zatiak dituztenak ere.
- Beste modu bat **“Wikipedia GapFinder”** tresna erabiltzea izan daiteke. Tresna horren bidez, jatorrizko eta helburuko hizkuntzak aukeratu, eta gai jakin baten inguruan falta diren artikulua bistaratu zaizkigu. Aukeratutako artikulua hutsetik sortu edo itzultzeko aukera ematen du.



español > euskara

Q Mujeres en la ciencia

- Bestalde, **“Not in the other language”** tresna ere oso erabilgarria da aukeratutako hizkuntza batean egiteko dauden artikulua bilatzeko. Kategoria zehatz baten inguruan, hizkuntza batean dauden eta aukeratutako bigarrenean ez dauden elementu guztiak zerrendatuko dizkigu.

**Aukeratu beste gai pare bat eta egin ariketa bera. Ea nora iristen zareten. Baduzue nondik hasi.**

### Beste hizkuntzak oinarri hartuta:

- Euskarazko artikulua osa daitezke.
- Eginak dauden artikuluetan, falta dituzten kategoriak gehituta, artikulua bera ikusgarriago egin daiteke.
- Falta diren artikulua berriak sortu, eta beste hizkuntzatan dagoen informazioa itzuliz osa daitezke.

Artikulu berri bat sortzera bazoaz, akatsak saihesteko, publikatu aurretik, erabili “Aurrebista erakutsi” botoia. Ez du zertan artikulu luzea izan. Sortuta dagoen artikulu labur bat hasiera egokia da, beti, beste norbaitek jarraitzeko. Hala ere, gordetzen duzun atala amaituta egotea komenigarria da, ez utzi esaldiak edo ideiak amaitu gabe.

> **Laguntza:**

[https://eu.wikipedia.org/wiki/Laguntza:Sarrera\\_berriak](https://eu.wikipedia.org/wiki/Laguntza:Sarrera_berriak)<sup>14</sup>

14



## Not in the other language

This tool looks for Wikidata items that have a page in one language but not in the other.

In language	<input type="text" value="es"/>	wikipedia
Not in language	<input type="text" value="eu"/>	wikipedia
Category tree	<input type="text" value="Mujeres matemáticas"/>	depth <input type="text"/> (optional) <small>Use "featured article" category from eswiki</small>
Page title	starts with <input type="text"/>	(optional, case-sensitive)
PagePile	<input type="text" value="PagePile input ID"/>	(optional; check out <a href="#">PagePile</a> )
Output	Format: <input checked="" type="radio"/> HTML <input type="radio"/> PagePile Links to: <input type="radio"/> Wikidata <input checked="" type="radio"/> Source Wikipedia	

Do it

## Results 1–100

1. [Abigail Thompson](#)
2. [Alice Tuner-Schafer](#)
3. [Alicia Dickenstein](#)
4. [Amie Wilkinson](#)
5. [Angeline Stickney](#)
6. [Annie Easley](#)
7. [Bernadette Perrin-Riou](#)
8. [Bruria Kaufman](#)
9. [Capi Corrales Rodríguez](#)
10. [Carme Torras](#)
11. [Caroline Series](#)
12. [Chiu-Chu Melissa Liu](#)
13. [Chrystal Macmillan](#)
14. [Claire Voisin](#)
15. [Clelia Grillo Borromeo](#)

# Irudiak eta argazkiak igo.

Wikipedian laguntzeko modu asko daudela ikusi dugu. Horietako bat izan daiteke irudi, argazki edo bestelako multimedia ekarpenak egitea. Wikipedian erabil daitezkeen irudiak mugatuak dira, derrigorrez lizentzia askekoak bakarrik erabil daitezkeelako. Ikasleek beraien egindako argazkiak, irudiak, eskemak, grafikoak edo mapak igo ditzakete Wikimedia Commonsera, edonork erabiltzeko baimena ematen ari direla jakinik.

**Irudiak igotzeko prozedura ikasteko, “Wikipedia irudizatzen” PDF dokumentua lantzea gomendatzen dizuegu. [https://commons.wikimedia.org/wiki/File:Wikipedia\\_irudizatzen.pdf](https://commons.wikimedia.org/wiki/File:Wikipedia_irudizatzen.pdf)**

**Irudiekin lan egiteko hainbat proposamen daukazue hemen:**

- **“Asteko argazki”an parte hartzea.** “Asteko argazkia” [Euskal Herriko](#) irudi hoberenak nabarmentzeko modua da. Boto gehien duten argazkiak [Wikipediako azalean](#) eta “Nabarmendutako irudiak” orrian agertuko dira aldi batez, eta gero “Irudi nabarmenduak” atalean gordeko dira. [https://eu.wikipedia.org/wiki/Wikipedia:Bozketak/Asteko\\_argazkia](https://eu.wikipedia.org/wiki/Wikipedia:Bozketak/Asteko_argazkia)<sup>16</sup>
- **“Photo Challenge” ekimenean parte hartzea.** Hilabetero aukeratzen den gaiaren inguruko argazkiak igo daitezke. Igotako guztiak hilabeteko argazkia aukeratzeko bozketa-sisteman sartzen dira eta, irabazi edo ez, Wikipedian erabiltzeko prest gelditzen dira.

Esaterako:

2018ko martxoan, Portraits of influential women izenburupean, “Idoia Etxeberria, stone lifter” argazkia igota dago. Gezurra badirudi ere [Jarek Tuszynski](#) izeneko argazkilariak Washingtonen atera eta igotako argazkia da.



**Parte hartzeko:**

[https://commons.wikimedia.org/wiki/Commons:Photo\\_challenge](https://commons.wikimedia.org/wiki/Commons:Photo_challenge)<sup>17</sup>

- **Besterik gabe, zuen ingurunean txango bat antolatu eta argazkiak ateratzea.** Onak direnak aukeratu eta Wikimediara igo. Ondoren, dagozkion Wikipediako artikuluetan argazkien falta dagoela ikusten baduzue, artikuluko horiek zuek igotako argazkiekin osatu ditzakezue.

15



16



17








# Ilustrazioak sortu edo itzuli.

Euskarazko Wikipedian, hainbat artikulutako ilustrazioetan, beste hizkuntzatan idatzita dauden testuak daude. Artikulua bera itzulita dago, baina ilustrazioko testuak itzultzea edo euskaraz dagoen ilustrazio berria sortzea zailagoa gertatzen da.

Adibidez, gida hau egiteko momentuan, landare-zelularen euskarazko artikuluan honako ilustrazio hau zegoen:



**Bilatu testua beste hizkuntzatan duten ilustrazioak, deskargatu haien irudi mutua edo SVG formatuko irudiak, eta gehitu euskarazko testuak.**

18




19



## Adibide gehiago:

Gaztelaniazko “Corazón” artikuluan hainbat ilustrazio eta animazio daude. Horietako batzuek ez dute testurik, eta euskarazko artikuluan zuzenean txerta daitezke. Beste batzuek, ordea, gaztelaniazko testua dute eta moldatu egin beharko lirateke euskarazkoa osatu eta hobetzeko.

Beste horrenbeste gertatzen da giza gorputzaren inguruko artikuluan edo gihar-sistemari dagokion artikuluan.



Ingelesezko Wikipediako ilustrazioa



Euskarazkoan dagoen ilustrazio bakarra

***Litekeena da hemen aipatutako adibide horiek osatuta egotea zuek gida hau irakurri eta egiaztatzen joaterako, baina zuzendu gabeko horrelako adibide asko aurkituko dituzue hainbat gairen inguruan. Ilustrazioak, animazioak edo mapak sortzen eta egokitzen ekarpen handia dago egiteko.***

# Txikipedia

Txikipedia 8-13 urte bitarteko umeentzako euskal entziklopedia bat da, adin-tarte horretako umeentzako moduko lexiko eta sintaxiarekin egina; horregatik, euskara garbi eta errazean idatzita egotea da helburua, umeen eskola-beharretara moldatua, baina ulergarritasunari garrantzi handia emanez.

Txikipediaren oinarrian Wikidia izeneko online wikientziklopedia badago ere (2015ean hasi zen), proiektu berria da. 2018ko apirilaren 4an egin zen haren aurkezpena, 1000 artikulua idatzita zeuzkalarik.



Artikulua	Eztabaida	Txikipedia		Wikipediako euskarazko artikulua bakoitzaren ondoan, Txikipediako artikuluen bertsioa ikusteko erlaitza dago.
Artikulua	Eztabaida	+TX		Txikipediako artikulua sortuta ez dagoenetan, berriz, artikulua sortzeko erlaitza ikusiko duzue. Euskaraz idatzita dauden artikuluetatik gutxi daude Txikipediara egokituta.

**Atal honetan ere badago zertan lagundu.**

**Gainera, euskal umeek eurek ere parte hartzea nahi da Txikipedia egiten, haiek idaztea, osatzea edo zuzentzea interesatzen zaizkien artikulua, baina beti ere euren irakasleen laguntzarekin; horrela, euren ekarpena egin dezakete, eskolarako baliagarriak gerta daitezkeen gaian.**

Wikipediako eta Txikipediako "Karraskari" artikulua nabarmendua aztertzeraz gonbidatzen zaituztegu. Nola daude idatzita bata eta bestea? Zeri ematen zaio garrantzia?

# Egiten diren aldaketen kontrola. Bandalismoa ekiditeko tresnak.

Puntu honetara iritsita, bandalismoaz eta Wikipediak dituen kontrol-mekanismoei buruz jarduteko ordua iritsi zaigu.

## Zer da bandalismoa?

“Bandalismoa”, Wikipedian, asmo txarrez egindako edozein aldaketa da: informazio baliagarria ezabatzea, testua okertzen duen aldaketaren bat egitea, edota iraingarria nahiz gezurrezkoa den orriren bat sortzea, besteak beste. Norbaitek aldaketa horiek asmo onez egin baditu, hobetzeko asmoarekin, hori ez litzateke bandalismoa izango.

Bandalismoa Wikipediak behin eta berriz nozitzen duen arazoa dugu. Nahiz eta hasieran arazo larria dirudien, bandalismoak ez du aurrerabiderik izaten Wikipedian. Izan ere, Wikipediaren erabiltzaile gehienek asmo onez jarduten dute, eta eguneroko edizioen artean bandalismo ekintzak gutxienak izaten dira. Beraz, gehien-gehienetan, luzaro gabe, beste erabiltzaileen batek ekintza horiek ezabatzen edota lehengorutzen ditu. Bandalismoa, oro har, erregistratu gabeko erabiltzaileek egiten dute, hau da, Wikipedian izena emanda ez dauden erabiltzaileek; hala ere, haien IP helbidea erregistratuta geratzen da.

Bandalismoa egiten duenari blokeoa ezarriko dio administratzaile batek, Wikipediari kalte egiten jarraitzea galarazteko neurri hori beharrezkoa dela baldin baderitzo. Blokeo horrek irauten duen bitartean, erabiltzaile-kontu horretatik edo IP helbide horretatik Wikipedian editatzeko baimen gehienak ezeztatuta egongo dira.

## Zein bide daude bandalismoa detektatzeko?

Bandalismoa detektatzeko modurik arruntena azken aldaketen orria patruilatzea da. Horrela, IP helbide batek aldaketa berri bat egitean, ikusi ahal izango duzu; eta, benetan bandalismoa baldin bada, aldaketa atzera bota ahalko duzu. Zure jarraipen-zerrendan dituzun orrialdeak noizbehinka begiratzuz ere aurre egin diezaiokezu bandalismoari.

## “Aldaketa berriak” atala

The screenshot shows the 'Aldaketa berriak' (Recent Changes) page on the Basque Wikipedia. The page title is 'Aldaketa berriak' and it is located under the 'Berezia' (Main Page) section. The page content includes a list of recent changes, with a filter for 'Gizaki (ez bot)' (Human (not bot)) selected. The list shows several edits, including those by bots like UKBot and administrative changes. A sidebar on the left contains navigation links, and a top navigation bar includes the search bar and user options.

Aukera hauen bidez, bilaketaren ezarpenak alda daitezke:

This image shows a close-up of the search filters and settings on the Wikipedia 'Aldaketa berriak' page. It features buttons for 'Izen-tarteak' (Name spaces) and 'Etiketak' (Tags), and a settings button for '50 aldaketak, 7 egun' (50 changes, 7 days).

Artikulu jakin baten jarraipena egin daiteke artikuluan bertan “Ikusi historia” sakatuz.

The screenshot shows the Wikipedia article for 'Karraskari' (Squirrel). The article includes a large image of a squirrel and a smaller image of a squirrel family. The text describes the squirrel's behavior and habitat.

Artikulu bakoitzaren aldaketen historia ikus daiteke:

The screenshot shows the Wikipedia article page for «Txikipedia:Karraskari» omiko edizioen historia. The 'Ikusi historia' tab is selected. Below the title, there are search filters for 'Urtea (eta lehenagokoak): 2018', 'Hilabetea (eta lehenagokoak): guztiak', and 'Etiketa iragazkia:'. The page content includes a legend for edit types: (oraingoa) = oraingo bertsioarekin dagoen aldea, (aur) = aurreko bertsioarekin dagoen aldea, t = aldaketa txikia, → = Sekzio batean aldaketa, ← = Aldaketa automatikoen laburpena.

Artikulu baten berrikuspenen arteko aldeak ere ikus daitezke.

The screenshot shows the Wikipedia article page for «Txikipedia:Karraskari»: berrikuspenen arteko aldeak. The 'Nabigazio historia' section is visible, showing two versions of the article. The left version is dated 18:19, 26 maiatza 2018ko berrikusketa (aldatu) by MerZab (eztabaida | ekarpenak). The right version is dated Hauxe da oraingo bertsioa, 15:46, 30 maiatza 2018 data duena (aldatu) (desegin) (eskertu) by Xabier Armendaritz (eztabaida | ekarpenak). The right version includes a note: † (Removing from Category:Txikipedia:Animaliak using Cat-a-lot).

# Proiektuak antolatzen. Arbela.

Arbela hainbat programa eta jarduera kudeatzen laguntzen duen tresna da. Wikipediako artikuluen sorreren jarraipena egiten du, artikuluen esleipena egiteko aukera ematen du eta, bukatutakoan, artikuluen garapenaren eta ikustaldien estatistikak ematen ditu.

Sistema erraza da: irakasle eta ikasle bakoitzak kontu berria sortzen du Wikipedian. Irakasleak ikasleei artikulua esleitzeko aukera izango du, edo, zuzenean, ikasleek eurek har ditzakete artikulua. Bukaeran, proiektu bakoitzaren estatistikak emango dizkigu, modu errazean, egindako lanaren balioa zein den kontatuz.

> **Laguntza:**

<https://eu.wikipedia.org/wiki/Atari:Hezkuntza/Arbela><sup>20</sup>

Arbela erabiltzen trebatzeko, zure Wikipediako erabiltzailearekin berarekin saioa hasi eta **“Trebakuntza”** atalera joan zaitezke.

<https://outreachdashboard.wmflabs.org/training/learning-and-evaluation><sup>21</sup>

## Irakaslearentzako jarduera

- Sar zaitez Arbelera zure Wikipediako erabiltzailearekin.
- Sortu programa berri bat. “Hezkuntza programa”ren barruan sartzeko komeni da. Horrela, laguntza errazago izan dezakezu. [https://outreachdashboard.wmflabs.org/campaigns/hezkuntza\\_programa/overview](https://outreachdashboard.wmflabs.org/campaigns/hezkuntza_programa/overview)<sup>22</sup> “Programa sortu +” botoiari emanez batu zaitezke honetara.
  - Emaiozu programari zure eskolaren izena.
  - Nahiago baduzu, sortu programa pribatu moduan.

20



21



22





## Programa independente bat sortu

Programaren izenburuak eta erakundeak osatzen dute URLa. Hasierako wikia parte-hartzaileek lan egingo duten wiki nagusia da, eta wiki honetako aldaketei lehenetsita egingo zaie jarraipena. Zure programak hainbat hizkuntza edo proiektu biltzen baditu, dagokion wikiko 'Artikulu eskuragarri' edo 'Lan' bateko ekarpenei ere jarraipena egingo zaie.

Programaren izena:

Erakundea:

Hizkuntza nagusia:

Proiektu nagusia:

Programa pribatua (administratzaile eta bideratzaileentzat soilik ikusgai):

Aktibitate jarraipenaren hasiera:

 : 

Jarduera jarraipenaren amaiera:

 : 

Zehaztu ekitalde banatuen hasiera/amaierako ordutegiak 

Hasiera eta bukaera datak zure tokiko ordutegian erakusten dira.

Programaren deskribapena:

Zer da programa hau, eta zer egingo dute parte-hartzaileek wiki(et)an? Mesedez eman behar beste detaile Wikipediako beste lankideei zure ikasleek egingo dituzten ekarpenen nondik norakoan berri adierazteko.

- Gonbidatu zure ikasleak programa berrira, programaren esteka haiekin partekatuz, edo zuzenean haien erabiltzaileak programan gehituz.

Parte-hartzea

Pasahitza:wvlhtrs

Lankideek URL hau bisitatuz eman dezakete izena:


[Add multiple users at once.](#)

[Eskatu kontua](#)



- Hortik aurrera:
  - Proiektu zabalagoa antolatu nahiko bazenu, landu beharreko artikulua esleitu ahalko zenizkieke zure ikasleei. Ezaugarri horri esker, irakasleok laguntza eman diezaiekezue ikasleei landu daitezkeen gaiak aukeratzeko orduan.
  - Editore, hau da, ikasle bakoitzak esleitu zaizkion artikuluetan egiten duenaren jarraipen zuzena egin zenezake.
- Horrez gain, Arbela tresnak WhoColor teknologia euskaraz erabiltzen du. Horren bidez, ikasle bakoitzaren (berez, artikulua editatu duen edozeinen) lana zein izan den jakin dezakezu. Artikuluaren "Historia ikusi" botoiari ematea baino ez dago.

WhoColor sistemak lan hori errazten du: editore bakoitzak egindako lana kolore batekin markatzen du. Horrela, erraza da ezagutzea editore batek paragrafoak gehitu dituela, beste batek zuzendu egin duela, edo badela erreferentziak bilatzen egon den ikasle bat. Emaitzak ikusteko, nahikoa da "Oraingo bertsioa egile markekin" sakatzea, artikulua bakoitzaren estatistikak ikusteko pantailan.



# Ez gaude bakarrik. Komunitatea.

---

Wikipedian ez gaude bakarrik. Editore askoren artean osatzen den lana da, eta, ondorioz, besteen laguntza jaso genezake, eta beste norbaitek egin duen lana aldatu aurretik, harekin aldaketa egokia den edo ez eztabaidatu genezake.

Horretarako ere badira hainbat tresna. Editore moduan izena eman dugun une beretik, bakoitzak gure erabiltzaile-orria dugu. Goian, eskuinaldean, erabiltzaile-izena ikusiko duzu, eta bertan klikatuta, zure lankide-orria. Orri horretan zeure buruaren berri eman zenezake besteek zein zaren jakiteko.

“Eztabaida orri” bat ere badago, eta bertan beste lankide batzuek mezuak utz diezazkigukete. Era berean, beste lankide batekin harremanetan jarri nahi badugu, nahikoa da haren “Eztabaida orri”ra joan eta mezu bat uztea.

Artikulu bakoitzak ere badu bere “Eztabaida orria”. Artikulu baten inguruan iradokizunak egiteko, aldaketak proposatzeko edo arazoak daudela adierazteko, artikuluaren “Eztabaida orria” erabiliko dugu.

Artikulu batean aldaketa esanguratsuak egingo badituzu, aurretik, proposa itzazu aldaketak artikulu horren eztabaida-orrian, artikulua garatu dutenak ados dauden jakin ahal izateko. Are gehiago gai teknikoa bada edo adituek garatutako artikulua bada.

# Proiektu- proposamenak.

## Txikipedian ekarpenak egin.

The image shows the text '+TX' in a bold, red, sans-serif font. The plus sign is on the left, followed by the letters 'T' and 'X' which are larger and more prominent.

Txikipedian guztia dago garatzeko, gustuko arlo edo gai bat aukeratuta: kirolak, gizarteak, historia, zientziak, biologia, literatura, animaliak, hiri edo herriak...

Wikipedian euskaraz idatzita dauden artikuluetatik abiatuta, Txikipediako artikuluek idazteko proiektua abiaraz daitezke. Ikasleei beraiei errazago egingo zaie beste ikasleentzako modu ulergarrian idaztea.

- Txikipediako artikuluek letra handiagoa erabiltzen dute, testu-masa txikiagoa behar dute, eta irudi edo ilustrazio gehiago. Esaldiak laburragoak dira eta alde batera utzi behar dute hiztegi teknikoegia.
- Ikasleek beraiek erabaki dezakete Wikipediako artikuluek dakarren informazio-tik zer den eurentzako esanguratsua eta zer teknikoegia.
- Aldi berean, Txikipediako artikuluek eskatzen duten euskara- eta idazketa-maila apalagoa izanik, errazago animatuko ditugu ikasleak ekarpenak egitera.

Irakasleak, gaien hautaketa egin, eta Arbela eta WhoColor bidez ikasleen lanen jarraipena egin dezake.

# Wikidata. Wikipediaren datu-basea.



Wikidata item edo elementuen datu-base bat da. Wikidatan itemak ditugu artikuluen orde. Item bakoitza elementu bakar bat da, modu argian defini daitekeena. Itemak Q letrarekin identifikatzen dira. Adibidez, Euskal Herria (Q47588), Ipar Euskal Herria (Q98405) eta Euskal Autonomia Erkidegoa (Q3995) item ezberdinak dira, eta bakoitzak bere propietateak ditu (P letrarekin adieraziak). Item bakoitzak (Q) hainbat ezaugarri (P) izan ditzake, hari buruz dugun informazio guztia sailkatu ahal izateko.


Gure proiektu-proposamenean, Wikidataren oinarrizko erabilera besterik ez dugu egingo.

## **Proposamena hau da:**

**Txango bat egin norberak bere herriko ondarearen argazkiak egiteko, eta argazki horien elementuak Wikidatara gehitu, ondoren mapa batean ikusi ahal izateko.**

Adibidez, lehenengo, ireki [query.wikidata.org](https://query.wikidata.org)<sup>23</sup> helbidea. Bertan egin ditzakezu bilaketak Wikidatan.

Oñatin kokatuta dauden elementuen mapa osatuko dugu. “Iragazi” jartzen duen tokian klikatu, eta “Oñati” idatziko dugu. Ondoren, aplikazioak gomendatzen dituen ezaugarrien artetik, “honako erakunde administratiboan dago” aukeratuko dugu. “Erakutsi” atalean, eskatuko diogu bilatzen dituen elementuen koordinatuak eta irudia erakusteko.




Emaitzak erakusteko ematen dizkidan aukeren artetik, “Mapa” aukeratuko dugu.

Aurreikusi emaitza		
Label	koordinatuak	irudia
Oñatiko Unibertsitatea	Point(-2.415377 43.033976)	
Bidaurretako Santa Klara monasterioa	Point(-2.407319 43.031564)	
Arantzazuko besarkada		
Arantzazuko santutegia	Point(-2.39861 42.9789)	
Zumeltzegi dorrea	Point(-2.4129 43.03499722)	
Miguel eliza (Oñati)	Point(-2.41417 43.0331)	
Arantzazategi	Point(-2.45444444 43.0125)	
Oñatiko udaletxea	Point(-2.41311667	

23



Jarraian, Oñatiko mapa batean kokatuko dizkigu elementu guztiak. Bakoitzean klikatuta, koordenatuak eta argazkia ikusiko ditugu.



**Proiektuaren helburua, adibide honetan, Oñatin falta diren elementuak osatzea litzateke. Horretarako:**


- Igo txangoan ateratako argazkiak *Wikimedia Commons*era. Ariketa horren bidez, ikasleek hainbat gauza ikasiko dituzte: eskubideei buruzko alderdiak, katalogazioa, *Creative Commons*...
- Wikidatan, datu-basean, sortu eraikin horien itemak. Batzuk existituko dira, beste batzuk ez. Wikidatarekin eraikina, eraikitze-data, koordenatuak, eraikin mota, egilea... jar daitezke. Horrekin ikasten da datu-base erreal batean nola egiten den lan.
- Jarri Wikidatako item horietan igotako argazkiak.
- Azkenik, errepikatu kontsulta, eta egiaztatu gehitutako elementuak ere agertzen direla.

WIKIDATAko kontsultak egiten trebatuz eta kontsulta-ikuspegiak erabiliz, jarduera asko egin daitezke. Webgune honetan, eginda dauden hainbat ikusi eta erabil daitezke:

[https://www.wikidata.org/wiki/Wikidata:SPARQL\\_query\\_service/queries/examples](https://www.wikidata.org/wiki/Wikidata:SPARQL_query_service/queries/examples)<sup>24</sup>

### Adibidez:

Ikastolen sorrera-datari buruzko kontsulta egin eta denbora-lerro moduan erakutsi. Osatu falta diren datuak.



24



# Gure ikastetxeko artikulua lantaldean osatu edo sortu.

Bakoitzak bere helburu, gogo eta denbora-baliabideen arabera gara dezake proiektuaren osotasuna eta informazio kopurua. Wikipediaren izateari jarraituz, urtetik urtera ikasle berriek artikulua osatu eta hobetzeko aukera izango dute, datu zehatzagoak jarritz edo beste atal batzuk gehituz.

**Kontuan izan, artikulua ezin dela inolaz ere propaganda moduan sortu. Kasu horretan ere, testu entziklopedikoa garatu behar dugu. Alde batera utzi behar dira iritziak edo norberak bere ikastetxea goraiatzeko ahaleginak. Bestela, artikulua ezabatu egin dezakete, eta egindako lan guztia alferrikakoa izango da.**

Wikipediako Ikastolen zerrenda:

[https://eu.wikipedia.org/wiki/Ikastolen\\_Elkarteko\\_ikastolen\\_zerrenda](https://eu.wikipedia.org/wiki/Ikastolen_Elkarteko_ikastolen_zerrenda)<sup>25</sup>

- Ikertu eta informazioa jaso.
- Artikulua gidoia eta atalak erabaki (sorrera, historia, kokapena, ezaugarri nagusiak, etapak, proiektua...).
- Argazkiak atera edo ikastolaren artxibotik eskubidez libre daudenak eskuratu eta igo.
- Artikuluaren atalak lantaldeetan banatu eta guztien artean Drive dokumentu batean zuzen idatzi.
- Jarraipen egokiagoa egin ahal izateko, kudea ezazu proiektua Arbelaren bidez.
- Wikipediako artikulua sortu, edo dagoena taldeak idatzitakoarekin osatu.
- Argazkiak eta irudiak txertatu.
- Zure artikulutik beste artikuluetara loturak egin.
- Erabilitako erreferentziak txertatu.
- Ikastolako webgune ofizialera kanpo lotura gehitu.
- Beste artikulua batzuetatik berrira loturak txertatu. Esaterako, "Ikastolak" artikuluan.

25





Wikimedia Commonseko irudi guztiek CC-BY-SA edo jabari publikoko lizentzia dute, besterik adierazten ez den bitartean. Bertan biltegitratutako edukia Creative Commons Aitortu-Berdin Partekatu 3.0 lizentziaz edo geroagoko beste lizentzia batez eskura daiteke (<http://en.wikipedia.org/wiki/Wikipedia:CC-BY-SA>).



Wikimedia Fundazioaren eta beste edozein erakunderen marka erregistratuak eta logoak ez zaizkio Creative Commons lizentzia horri lotzen. Wikimedia Fundazioa, Wikipedia, Wikimedia Commons, MediaWiki, Wikiztegia, Wikiliburuak, Wikipurriak, Wikiberriak, Wikiesanak, Wikibertsitatea, Wikispezieak, Wikidata eta Meta-Wikik ez dute oraindik marka erregistraturik, edo Wikimedia Fundazioaren marka erregistratuak dira.

Argibideetarako, ikus mesedez Marka Erregistratuen Politika orria (ingelesez): [https://foundation.wikimedia.org/wiki/Trademark\\_policy](https://foundation.wikimedia.org/wiki/Trademark_policy).

Gure lizentzia baldintzei edo marka erregistratuari buruzko galderetarako, bidali mezu elektroniko bat hona: [hezkontza@wikimedia.eus](mailto:hezkontza@wikimedia.eus) edo, nazioarterako, [legal@wikimedia.org](mailto:legal@wikimedia.org).

**Egileak:** Euskal Herriko Ikastolak (EHI) eta Euskal Wikilarien Kultura Elkarteak .